

Larrepetit

Fredí Paia



Biharko gosea

Eskaletan antzerkiko eta telebistako erreferentzia nagusienetako bati entzun nion lehengoan, berrehun metro autopista kultura aurrekontu osoa baino diru gehiago direla gurean. Inbertsiogile pribatuak behin eta berriaz gogoratzen digute gure kultur merkatuaren bideragarritasun ekonomikoa eza. Pertsiana jaisten dute diskoetxeek, euskaran inbertitzeko beste kultura batzuetan dirua egin beharra iradokitzen dute argitaletxe-ek eta arte plastikoetan inportazioa da apustu nagusia.

Beste hizkuntzetan aurki zenezakeen edozein produkturen kontsumoa urria da euskaraz. Elebitasunak konparaziorako erraztasuna dakar eta ez dirudi lehia horretan trabazle atera garenik. Hara bertsolaritzaren abantailakoa bat. Ahozko inprobisazioan bai, mundu mailan garatuena gara.

Guggenheim da agintarien kultur politikaren paradigma. Epe laburreko etekina, kanpoin sortua eta homologatua. Durangoko azokaren salmenta aukerak sortzaileengan presio merkantilista izugarria eragitera daramatza gainontzeko kultur eragileak.

Dirua daukatenek sorkuntza prozesuaren azken fasean baino ez dute inbertitu gura, salmentan. Baina salgarria eta konpetitiboa den produkturaino heltzeko tarteko etapetan inbertitu beharra dago. Ikasketa, hobekuntza, lehenengo praktikak, formakuntza etengaberrako baliabideak... Baina inbertsio horiek etekinak epe luzean dakartzate.

Sorkizleari behar duen guztian laguntzea da kultur politika bideragarri bakarra.

Hemeroteka

Noticias de Gipuzkoa Profeta berria

Egokortuta dabil erabat Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena. Harrigarria da Judikaturaren instanzien arteko deskordinazioa, kontraesan etengabeen korapilatuta dabilta, eta sistema judizialean gero eta fede gutxiago du gizarteak. Desobediencia zigortu nahi dute, antza. Legez kanporatutako alderdi bategin bildu izanagatik epaitu nahi dituzte Lopez eta Ares sozialistak eta, bereziki, Ibarretxe lehendakaria. Hori guztia orain gertatzen ari da, Espainiako Gobernuaren izenean ETA talde armatuarekin hainbat bilera egin eta hilabete batzuetara. Zein izan zen bileren helburua? Hor dago kokka.

Aurpegitik gabeko epaileak, Mahomaren ordezko profeta berriak, Roberto Saiz jaunak, diskrezioaren eredu omen denak, diskrezorik gabe eginko bilerak zigortu nahi ditu. Lopez, Ares eta Ibarretxeek Batasuna alderdiaren ordezkariekin aitortutako bilerak egin zituzten. Lehendakariak Ajouria Enean hartu zituen gainera uesteko gaizkileak, kamerak lekuko zirela. Hori aski ez eta, bakea lortzeko beharrezko balitz, behin eta berriaz gauza bera egingo lukeela ihardetsi du. Eta jarra hori onartezina begitandu zaio profeta berriari. Euskal herritarrik gehienok garbi dugu, ordea, Batasunarekin eginko bilerak bakebidean eginko ahalegin bat gehiago izan zirela, bakerantz hurbiltzen gintuztela. Eta gure buruzagiek, mandatu oren gainetik bakea eta elkarbizitza hobea lortzen saiatzekoa hartu zutenek, ahalegin hori egiteko behar morala dute, legedia eskuan hori eragozten saiatuko den epaileren bat gora-behera.

Legediak hobeto bizi izateko aukerarik urrutien gaituen septipena hedatzen bada, desobediencia bideko gero eta herritar gehiagok hartuko dute. Garzon eta Mariaskaz hain asperturik gaudenez, ez düt esango epaileek derrigor aurpegia behar dutenik. Baina burua bai, mesedez! XABIER EIZUTZ

Kroketa eta bikaintasuna

Tamalez, munduko kroketa-rik hoberenak egiten dituenak ez zegoen Jakiunde-ko sorrera ekitaldian. Han zeuden emakume batzuk eta lau aidiz gizon-eko gehiago, eta hori ez da arazorik handiena. Gorajpatzen ez diren emakumezkoen talentuetan eta balioetan datza gabezieta-ko bat. Han bildutakoak merezimendu handiko pertsonak dira, profesional bikainak; ziurren beraien produktua oso ongi saltzen dakitenak eta, atzean, lan talde fina daukatenak. Baina azaltzen diren helburuak lortzeko lehengai hori behar duen herri honek da zalantzan jartzen dudana. Gutxienez norberaren buruaz maiteminduta egin behar da Jakiun oso- ren izendapena jasateko eta ez gorritzeko. Auto-estimuan bikainak, emakume askori falta zaiona. Erkeidogoko Erregimenaren arte, letra eta zientzia arloko adituak, betiko sarrituen ordezkarri hauek, beraien arloan onak izateagatik, «batera pentsa- zeko arterako» balio behar al dute? Badira itur- gin, igetitsero, maistra edo ama lanetan bikainak direnak eta ez ditugu akademiko izendatzen. Hori da, hain zuzen ere, herri honi egiten dioten ekar- penik handiena: batek adreiluekin eta besteak haurrekin lanean, norik berean bikainak, egune- rokoan. Javier Retegik, Eusko Ikaskuntzako le- hendakariak ondoto dio: «Ez da honoris baizik eta laboris causa» bidea argitzen. Gure erronkei aurre egiteko ez dugu behar patrizioen foroa. Emakume gehiago behar ditugu erreferentzia postuetan, tradizionalki emakumezkoenak izan diren abilezia, trebetasun eta balioak dira erakus- tokian behar ditugunak. Ahaideko gaixoa zain- tzen duenarenak, seme-alabek jaten ez dituzten hondarrez osatutako dieta daukan edozeinenak, altzo goxoa eskaintzen duenarenak, belaua arraspatua edo apurtutako bihotza sendatzeko balio duen muxua ematen duenaren trebetzak, ... baina baita emakumezkoenak diren protagonis- moa hilatu gabeko bikaintasunak, lan profesional serioarenak, ardurarenak, antoiaketa zorrotzaren- ak, lanikidetzarenak, negoziatzaio-ko eta ez nor- gehiagoko artizko talentuak ere daude laudatu behar ditugun artean.

Aurrean ditugun arazoak aurre egiteko ez dugu argigileen iparrorritzak behar. Inguruan dauka- guna ikusten jakin behar dugu, begiratzen ikasi behar dugu, ez da argi falta kontua. Herri honen aurrerapenerako bideak egunero argi azaltzen zaizkigu. Beraietan pausoak ematea da gakoa.

«Bikaintasunaren zentrifugagailuarena» da Etxenike komunikatzaile trebeak, erabiltzen duen lizentzia. Lastima fisikari bikainaren apa- rluhan bertsolaririk ez sartzea! Agian sartu du eta ez da zentrifugatua atera, gunean geratu zaio.

Pedro Miquel, munduko kroketa-rik hoberenak egiten dituenak sartu nahi izatean, hona etorri, Le- zora, Kale Nagusian bizi da.

• Jokin Mayo, Lezo

Ardanzaren hitzaldia dela-eta

Sabino Arana Fundazioak antolatutako hitzaldietan, non hiru lehendakariaren gogoetak azalduko diren, lehenengo hizlaria, Jose Antonio Ardan- zak, eman du bere iritzia.

Bere uestez, derrigorrezkoa da ETAre- n desagerpena euskal nazio ikuspegitik aurrera eramango gaituen edozein proposamen mahai gainean jarri aurretik.

Desagerpen hori lortzearen, ezker abertzalea po- liziaren bidez estutzea proposatzen du Ardanzak.

Zer ueste du ari dela egiten Espainiako Gober- nua duela urte askotatik hona? Orain hamar urte HBko Mahai Nazionalea kartzelatu, Egin egunka- rria itxi, epaiketak (18/98, Udalbiltza, Herrikoak, Segi, Askatasuna), Alderdi- en Legea...

Urte luzeetan burutu den politika horrek ez duela emaitzak izan bistakoa da. Agian Ardanza jauna politika horretan sakontzea proposatzen ari da? Noraino, baina? Ahoz aho dabilen-ehun edo berrehun militanteren atxilotakak burutzeraino? Eta honek ere ez badu emaitzarik izaten, Brouar- den eta Muguruzaren antzeko hilketak politikoak iradokitzen ari da agian?

Planteamendu basati hori Euskal Herriaren ga- rapen nazionalaren ikuspegitik justifikatzen du Ardanzak, baina ez dator bat bere uesterekin, gi- zon honek beti lehenetsi baititu bere interes per- sonalak, Euskal Herriaren interesen gainetik.

Hor dago, adibidez, Urdalbaikoa txaletaren afe- ra, inolako kontraesanik eragin ez diona Euskal- telen zuzendaritzan jarraitzeko, diru erdi-publi- ko-arekin probetxua pertsonala ateratzen, aurpegia gorritu barik.

• Juan Miquel Zabaleta, Bilbo

Txillardegik arrazoiak eta?

Azkenaldian Euskal Herriko desagoera politiko- antisoziala zein norabide hartzen ari den ikusita eta datorren hauteskunde garaian desagoera- k okertzera eta gaiztotzera joko duenaren ziurtas- na medio, Txillardegiren hitzak berretsiak dirudi- te: «Nik ere amestu nuen konponbidea lortzerik bazegoela... baina ezinezkoa da».

Bere kategoriko eta eskarmentuko norbait ha- lako ondoriotara ailegatzeko katastrofe hutsa da edonorentzat; eragile politikoak kartzelatzea eta kartzelatzearekin mehatxatzea katastrofe hutsa da konponbidearentzat; baldintza hauetan inongo hauteskunderik egitea katastrofe hutsa da demokraziarentzat; gatazkaren luzapena ka- tastrofe hutsa da preso direnrentzat; ETAre- n oldartzea katastrofe hutsa da herritarrentzat; doli adierazpenak galaraztea katastrofe hutsa da bizi- kidetzarentzat; gaiztean atxilotuak desaste hu- tsa dira etorkizuneko gizartearentzat; eta abar, eta abar. Hamaika hondamendi ezberdin, euskal ekuaizoiaren elementu guztiak berea propioa ba- duteja.

Tamalez, hondamendi horien guztien artean badago naharmen gailendu daitekeen: ahale- ginean etsitzea. Azken hondamendi honek ziurta- tuko zukeen beste guztien iraupena etorkizunear- eta egungo egoera biharamunear ere errotzea.

Txillardegiren hitzetatik eratorriko irakaspene- ez dira ezintasuna eta etsipena, batzik eta orain arteko pentsamolde eta ikuspegi- en antzutasuna.

Irizpide berriak behar dira egungo egoeraren balorazioa egiteko, beharrik eta helburuak finka- zteko eta, zer esanik ez, baliabide eta tresna ego- kiak hautatzeko. Ausardia eta malgutasuna be- har dira agurturiko planteamenduak alde batera utzi eta bide berriak jorratzeko, hainbat aiddan zapuztutako ilusioa berpiztu eta zuhurtasunez aurrerantz abiatzeko.

Etsipenari tarterrik ez, bilakaerari eta baikorta- sunari atak ireki.

• Pello Garmendia Tapia, Burlata

ZU zen DARI ARI

BERRIAK irakurleen eskultutzak plazazartzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak bume— baino luzeago izan behar, eta BERRIAK mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta hema adierazta: Berra, Martin Ugaldé Kultur Parkea, 20140 Andoain, Eskultutzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

Lotsagarria

Lotsagarria da Lehendakariaren aurka epaiketa hasteko hartu du- ten erabakia. Ez dago eskubide- rik Euskal Herriko biztanleriaren %75en lehendakaria epaile- ren aurrera eramateko. Ekintza hauek erabat salagarriak dira, eta espero düt instituzioen alde-

tik egongo dela nolabaiteko eran- tzuna (ekitaldiak, manifestazioak...). EAJk inoiz baino argiago erakutsi behar du euskaldunon interesen alde egiten duela borro- ka eta ez duela onartuko horrela- ko ekintzarik zuzenbide estatu batean.

• Agzietarra

Lasaitasunerako deia

Lasai denok. Euskal Herriak le- hendakariarekin bat egiten du eta espainiarrek ikusiko dute zere- gnik ez dutela. Espainiarren jokae- ra hau lotsagarria da mundu guz- tiaren begitan eta demokraziaren aurkako ekintza argia da.

• Ane Urriutia

